

JAVIER ETXEBESTE

Deskribapena: Kable edota kargadore mota desberdinen imajinak ageri dira.

Kike (off ahotsa): Interneten presentziarik ez duten hizkuntzen etorkizuna beltza baino beltzagoa dela diote adituek. Enpresen kasua berdina ote da?

Deskribapena: Kike Javier Etxebeste ekintzaile digitalarekin elkarrizketan ageri da.

Kike: “Javier gaur egun enpresa batek ba al du etorkizunik internetetik kanpo?”

Javier: “Nere ustez oso gutxi, eskaxa. Ez bakarrik internet komunikazio eta transakzio salketarako kanala gero eta garrantzitsuagoa dalakoz, baizik eta esango nuke ere, internet ari dalakoz enpresa mundua edo industriak digitalizatzen. Gero eta gehiago barrendik aldatzen ari dira.”

Kike: “Eta euskerak zer nolako abantailak ditu teknologia berrietan, lehiakorra al da mundu globalizatu honetan?”

Javier: “Nere ustez bai, argi dago lehia gero eta gogorragoa da, eskeintza gero eta irekiagoa da, baina zentzu hortan nik uste dut bi abantaila markatuko nituzkela. Erreztasun handiena da frikzioaren desagerpena, sortzaile eta erabiltzaileen arteko harremana eraikitzea, edo eduki aproposak edukitzea, oso errexoa da erabiltzailearentzat nahi baldin badu. Eta bigarrena konfiantzarena esango nuke. Nik edo zuk edo edozeinek ezagutu dezake euskeraz sortzailea edo kazetaria den pertsona bat atsegin duena eta interneten bidez bere kontaktua, berarekin kontaktuan jarri eta mundu fisikoan gero harremana hori eraiki. Inglesez edo erderaz idazle ospetsu batekin edo argia daukan batekin harremana eraikitzea oso zaila da.”

Kike: “Askotan irakurri izan dizut hizkuntza gutxitu baten hiztuna izatea eta iruindarra izatea abantailak suertatu zaizkizula.”

Javier: “Bai. Nik uste dut, orokorrean esango nuke, gizarte garatuetan eta mendebaldean, heziketa orokorrean, biguina eta errexoa izandu da. Zuk euskaraz bizitzeko egunero tentsio baten bizi behar zara, zoritxarrez, baina hala da eta horrek hezitu eta preparatu egiten zaitu gero munduan zehar beste baikortasun batekin eta beste konfiantza batekin ibiltzeko. Tentsio horrek behartzen zaitu bat, onartzea zuk bestearekiko umiltasuna eduki behar duzula harremanetan, ze azkenean ez daukazu inperioaren hizkuntza bat, inglesa edo erdera, edo gaztelania edo frantsesa, berdina zait daukanak eta modu berean, modu berean, duintasunarekin egin, eta nik uste dut horrek ematen dizula gero gaitasuna jende bereziarekin, ba, adibidez, ba nik Indian behin baino gehiagotan aipatu dut indiar batekin ingelesez inglaterrako edo britaniar inperioko kolonia izandu den herri batekin gertutasuna eta berdintasuna, eta bere egoeraren ulermena lortzeko gaitasun askoz haundiagoa daukat Londreseko bat baino.”